



Lehiakideetatik bereizteko, hainbat esparru identifikatu ditugu, berritasuna, diseinua, eskuragarritasuna eta erabilerreztasuna. Bestalde, lana erraztea, etorkizunean jokoak izango duen abantaila da. Kontzeptuak eta historia irakasterako orduan modu interaktiboagoan eta errazagoan ulertzea lor daiteke, eta beraz, irakasleei lana aurrezten die.

Bezeroei, aspergarritasunatik ihes egitea eragiten die jokoak, momentu ahaztezinak sortzen ditu lagunekin eta beste batzuk gogoratzea eragiten du. Erosotasuna sustatzen duen jokoa baita. Halaber, ingurugiroa entretenigarria egiten du. Denbora pasatzeko era berri bat proposatzen dugu LAUAEME enpresatik.

Nahiz eta garaiko jokoa izan, denboran arrakasta izango du, adin ezberdinen artean. Modu egoki bat da gertaerak perspektiba ezberdinetatik ikusteko; hau da, 2020ko egoera modu optimistagoan ikustea eta egoera kaskarretatik beti irteera bat aurki daitekeela ikusteko.

Tablero bat da zeinetan bilatu behar da nor den hasierako infektatua, horretarako gainditu behar dira hainbat frogak. Beraz, frogak gainditzen diren heinean hilabeteak igarotzen dira, 2021ra ailegatzerarte. Ondorioz, heltzen dena infektatua bada, hark irabazten du, eta bestela, pertsona arruntek. Tablero eta pentsatzeko joko baten nahasketa da, jokalaria harrapatuta utziko dituen.

Laburbilduz, gure enpresaren produktuaren baliozko proposamena, denboran zehar mantenduko den produktua eta egoera historiko batetik helburu ludiko bat sortzea izatea da, ikuspuntu bakar bat jarraituz.